



## 📷 ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



### Albarritzako hargiña

**O**ñatin, beste herri askotan letxe, **era desbardiñetako lanbidietan jardundako gizakumiak** eta emakumiak izan ditugu historixan zihar, eta ugari gaiñera: errementarixak, ultzegiñak, olagizonak, perratzaillak, arotzak, uztargiñak, zerrarixak, ikazkiñak, baso-mutillak, karreteruak, hargiñak, harrijolliak, kamiñeruak, artzaiñak, nekazarixak, morroiak, zapatarixak, abatxerak, joskiñak, iruliak, ehungillak, arropa-garbitzaillak, plantxadorak, neskamiak, iñudiak, txokolateruak, konfitteruak, barberuak, pelukerak eta beste hainbat; industria eta zerbiziño modernuagotan ibili diran eta dabiltzen fabrikante, eskribiente, dendari, tabernari eta bestelako merkatarari nahiz artisau mordua ahaztu barik.

Gaurko honetan, orain dala gutxi fan xakun artisau oñatiar bateri **omenalditxua** egin gura xaugu: Garagaltza auzoko **Albarritza** baserrixan jaixotako **Jabier Bikuña Urzelai hargiñari**. Harrixak lantzen txantxikuar bat baiño gehixago nabarmendu bada be, guk ezagutu dogun bikaiñena Bikuña dala esango neuke. **Eta artisau aparta ez ezik, artistia be bazan Jabier**. Etxetik etorkixon ofizio horretarako afiziñua eta samurtasuna, aittajauna eta aitta be hargiñak eta igeltseruak izan ziralako.

Oñatin leku askotan ikusi leike **Jabierren lanen arrastua**, haren esku artetsuaren testigantzaia: **kalieta, itturri publikuetan, baserrittan, bidietan, eraikin dotore nahiz apalaguetan**. Etxekuaz gaiñera eskola erabagigarrixa euki eben San Migel parrokiñan 1956ttik aurrera modutu ziran obra ugari eta luzietan. **Maixu egogixa eta zailla** tokau xakon elizako lan hareittan: **Manuel Vasconcelos portugaldarra**. Egogixa eskola zaharreko hargin moduan jenixo bat zalako, baiña zailla haren bestelako jenixua aguantaitteko patxada haundikua izan bihar ziñalako. Jabierrek pazientziñaz eutsi osten Manuelen urtenaldi zelebren eta furrustadairi eta asko ikasi eben maixu portugaldarrarekin.

Sasue haretan, Reyes Korkostegi alkate zala, **aldaketa sakonak euki zittuan Oñatiko parrokiña nagusixak**. Inportantienak aittatuko ditugu: erreka gaiñeko **klaustua barrutik eta kanpotik zihero barriztau, itsututa egozen arku gotikuak berregiñaz**; klaustua eta eliziaren arteko paretak bota; hormetako harrixak bistaratu; organua koru barrerena eruan; edota **organuari eusteko 1749xan moldau zan arku txurrigereskua sakristixa aurrera ekarri**. Arku ikusgarri hori lekuz aldaketarakuan, sekulako une latzak pasau ei zittuan hargin gaztiak. Izan be, kanbixua ixa burututa eguenian, azkenengo piezak eta giltzarrixa ifintteko falta ziranian, portugaldarrak, kasketaldi batek jota, hanka egin eben. Piezok, kostata, bere lekuan jarri zittuanian, a zelakotxe lasaittua Jabierrena!

Harrezkero, parrokiñan bertan eta herriko beste toki askotan itzi oskun Bikuñak bere abilleziaren makiña bat aztarrena eder: **Arantzazuko eliziaren absidian, Urrutxu aldeko kanposantuan, edota Zañartuko upategixan**, adibidez. Eta **herrittik kanpora** be ospetsu bihurtu xakun Albarritzako semia harlangintzaiaren esparruan. Lan banaka batzuk gogoratuko ditugu bakarrik: **Mikeldi izeneko animalixaren eskultura famauaren kopixia**, Durangoko Ezkurdi plazan dagueña; **Donostiako katedraleko kanpantorre neogotiko zorrotzaren garbiketia eta barrizketia**; edota **Legazpiko udaletzeko armarri barrixa**, esate baterako.

Parrokixako arku txurrigereskuaren fotografixetako bata 1948 ingurukua da, Donostiako **Manipel** enpresia ataratakua eta guri Iñaki Galdosek eskuratu dosku; arku horren beste argazkixa eta klaustroko arku gotikuarena 1982xan kaleratutako **Oñatiko Historia eta Arte Bilduma** liburutik hartu ditugu. Argibide batzuk Agustin Goenagarenak dira. Eskerrik asko Iñakiri eta Agustineri.